

# ximple!





## Agoizko Udala | Ayuntamiento de Aoiz

16. zenb. | nº 16

2019ko apirila

### ZERBITZUAK | SERVICIOS

Udaletxea | Ayuntamiento

948 33 60 05

Euskara Zerbitzua | Servicio de Euskera

948 33 65 65

Kultur Etxea | Casa de Cultura

948 33 66 90

Cederna Garalur

948 33 63 37

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Servicio Social de Base

948 33 40 95

Liburutegia | Biblioteca

948 33 64 53

San Migel Ikastetxea eta Institutua |

Colegio e Instituto San Miguel

948 33 63 09

Bisitaldi gidatua Elizara | Visitas guiadas a Iglesia

637 44 81 07

Dya

948 33 60 65

Suhiltzaile Boluntarioak | Bomberos Voluntarios

948 33 65 00

Udal Pilotalekua | Frontón Municipal

948 33 61 64

Kirol Gunea | Complejo Deportivo

948 33 67 06

### AURKIBIDEA

- 3 KONTUAK  
HERRITARREN PARTE HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA
- 4 LANA ETA FORMAZIOA  
INBERTSIOAK
- 5 HOBEKUNTZAK, HERRIAN
- 6 GIZARTE AUZI ETA BORROKEKIKO BABESA
- 7 BERDINTASUNA
- 8 GIZARTE GAIK
- 9 JUBILATUEN ELKARTEA  
IZAGA GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEA  
UDAL KUDEAKETA
- 10 OSASUNA  
HEZKUNTZA
- 11 UDAL MUSIKA ESKOLA
- 12 INGURUMENA  
IRATI MANKOMUNITATEA HSM
- 13 ONDAREA
- 14 TURISMOA
- 16 KULTURA ETA OSPAKIZUNAK
- 17 EUSKARA  
GAZTERIA
- 18 KIROLA

# ximple!

Oharra: Aldizkariko erredakzio kontseilua Udaleko alor eta batzorde guztietako zinegotziek osatzen dute eta udal teknikarien eta garapeneko agentearen laguntza dute. Horiek aukeratu eta idatziko dituzte zenbaki bakoitzean argitaratuko diren testuak.

## KONTUAK

Udalaren egoera ekonomikoa zaila da oraindik, 2011. urtetik hona egoera hobetu bada ere. Diruzaintza arazo larriak daude: likidezia falta dago eta fakturak ordaintzeko atzerapen handia dago.

Kontuak garbitu dira, eta zuhurki gastatzen da, xahutu gabe. Adibiderako, Ondasun Arruntan eta Zerbitzuen kapituluarekin, udal gastu proportzio handi bat biltzen duena, gertatutakoa da: 2009.an gastua 1.773.000 eurokoa izan zen eta 2017.an 971.000 eurokoa. Poliki-poliki zuloa gutxitzen ari da, nahiz eta epealdi honetan BEZ-a %13tik %21era igo den.

Udalak zenbaki gorritan jarraitzen du; hala ere, 2012.eko kontuetan -501.000 euroko zuloa zegoen eta 2017an -160.000 eurokoa. Konplexua izaten da zor bizia eta defizita gutxitzea eta, aldi berean, eguneroko gastuei aurre egin behar izatea. Bilakaera positi-

boa da, baina uste baino motelago gertatzen ari da.

### MAILEGUAK:

Udalak udal-zor bizia gutxitzea lortu du 2011-2019 urteetan, nahiz eta legegintzaldi honetan bi mailegu eskatu behar izan dituen (2015.ean 400.000 euro eta 2018.ean 120.000 euro) udalean maiz egon den likidezia faltari aurre egin ahal izateko. 2011.eko ekainean gure zor bizia 871.000 eurokoa zen. Gaur egun, legealdia oraindik itxita ez badago ere, 690.000 euroko zor bizia dugu kontuetan.

Horretaz gain, gure udalak behin eta berriz erreklamatu du Nafarroako Gobernuak finantzatzeko era hobea ezar dezala edo, bestela, Madrilak aurrekontuen egonkortasunerako indarrean duen legea, udalen egoera ekonomikoa itotzen ari dena, indargabetu dezala.



## HERRITARREN PARTE HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA

### KOMUNIKAZIOA:

Legealdi honetan komunikazioa indartu dugu. Zerbitzu bat kontratatu dugu laguntzeko, gure webgunea eta sare sozialak egoki eta ongi hornituta mantentzeko; horren bidez, hilabetean behin Udalaren berriak jasotzeko on-line boletina argitaratzen da, Ximple aldizkariaren hiru aleak koordinatzen dira eta beste komunikabideekiko harremana zaintzen da.

Horretaz gain, APP berria sortu dugu udal informazioa zabaltzeko, bizilagunen iradokizunei eta hobetzeko ideiei beti irekia dagoena eta gainera, webgunean eztabaida foro bat ireki dugu.

Herritarren parte-hartzea bermatzeko lanari dagokionez, urte hauetan guztietan auzoetako bilerak egiten jarraitu da, eta bizilagunen arazoetara hurbildu eta haien ekarpenak eta iradokizunak jaso izan dira.



## LANA ETA FORMAZIOA

### UDALAREN KONTRATAZIOAK:

Egun, 60 langile inguru lan egiten ari dira, modu egonkorrean, udalean eta haren menpeko enpresa publiko, mankomunitate eta bestelako zerbitzuetan.

Lau urte hauetan langile bat kontratatu da, kaleetako eta bideetako garbiketa egiteko (hasieran jardunaldi erdiko kontratua zuen eta ondoren, jardunaldi osoko kontratazioa bilakatu zen), eta Kultur Etxeko langile laguntzailearen jardunaldia handitu da (%50etik %60ra).

Legealdi honetan, Udalak pertsona langabeak kontratatu ditu, udaberri eta uda guztietan zerbitzu anitzetako eta administrazio lanetan aritzeko; urtean, bataz beste, zazpi kontratazio egin dira, eta iraupena lau hilabete eta urte betearen artekoa izan da.

Horiez guztiez gain, Agoizko Udalaren leku publikoetan ezarri eta aritzen diren ekintzaileak kontuan hartu behar dira. Horiek ere lana eta herriarentzako zerbitzuak sortzen dituzte (Hizkuntza Ludoteka, Dantza Eskola, Frontoiko Taberna, Igerilekuetako Taberna...).

### SUSTATZAILEAK:

Cederna Garalur elkarteko herriko agentearen bidez, etengabeko aholkularitza eskaintzen zaie sustatzaileei eta negozioak egonkortu edo handitu nahi dutenei. Garapen Agentziatik urtero

eskualdeko bostehun bat proiektu pasatzen dira, eta horien erdia Agoizkoak dira.

Guztiz gain, legealdi honetan, Udalak enpresen haztegiaren kudeaketa bere gain hartu du. Orain arte, Nasuvinsaren esku zegoen lan hori. Hiru bulego daude erabilgarri lan proiektu berri bat hasi nahi dutenentzat. Gainera, turismo bulegoa zena ere herritarren eskura jarri dugu haztegi gisa.

### FORMAZIOA:

Gure helburuak dira Agoizko eta eskualdeko herritar guztiei lan mundurako sarrera erraztea eta lanpostua lortzen laguntzea. Asmo horrekin, iaz, Udalak Nafarroako Enplegu Zerbitzuari utzi zizkion Aurelio León aretoa eta industrialdeko pabilioi bat, eskoragak eta plataforma jasotzaileak erabiltzen trebatzeko eta billegien kudeaketari buruzko ikastaroak eman zitzaizkien. Bestalde, José Hierro aretoa egokitu zen irisgarritasun ziurtagiria eskuratu eta bertan NEZk antolatutako bestelako ikastaroak egin ahal izateko.

Bestalde, Agoitzen, sustatzaile, langabetu eta ETE-ei (enpresa txiki eta ertainak) zuzendutako doako hainbat tailer egiten dira urtero. Tailerrak NEZrekin eta Cederna Garalur Garapen Agentziarekin elkarlanean egiten dira.



## INBERTSIOAK

### UDALETXEKO OBRAK:

Udaletxean hainbat konponketa eta moldaketa egiteko inbertsio garrantzitsu bat egin da, 250.000 euro ingurukoa. Lan horien artean, teilatua berritzea eta igogailua instalatzea dago. Hori dela eta, herritarrekiko arreta emateko, lekuak berrantolatatu dira. Konponketa horietaz gain, teilatupean areto berri bat egokituko da, El Irati S.Ari buruzko erakusketa iraunkorra jartzeko.

### ARGITERIAREN BERRITZEA:

Egitasmo handia izan da, 430.000 euroko aurrekontua izan du eta horri esker, 1092 argi-gune (LED sistemarekin) eta zaharkitutako hainbat kuadro elektriko berritu ahal izan ditugu. Egitasmoaren emaitzak fakturretan nabaritutako ditugu, %70a arteko aurrezkoa izan-gogulako.



Epealdi honetan, gure herrian beste inbertsio hauek ere egin dira:
 

- Nafarroako Kanalaren eta Gamesaren artean zegoen zuloa konpondu da, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren dirulaguntzarekin (1.120.000 euro).
- DYAko eraikinaren teilatua konpontzeko lanak Longidako eta Artzibarko udalekin batera burutu dira (20.900 euro).
- Zarrietako pista bi aldiz konpondu behar izan da, 2016.ean eta 2018.ean, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin (48.000 euro).
- Kanposantuan hobetze lanak egin dira, Paco Oyarzunen laguntzarekin: lehenbiziko fasea, 2017ean (18.000 euro), eta, bigarren fasea, 2018.ean.
- Herriko bide bat ere konpondu da, Paco Oyarzunen dirulaguntzari esker (53.000 euro).

## HOBKUNTZAK, HERRIAN

Udalaren gogo nahia izan da Agoizko zirkulazioa antolatzea eta ibiltzeko moduko herri atsegina bultzatzea.

### ZAINDU AGOITZ, ZURE ETXEA DA:

Herri baten garbitasuna ziurtatzeko auzolanean jardun beharra dago, talde lanean. Horregatik, Udalak kanpaina bat martxan jarri zuen eta horren baitan, herritarrei bost konpromiso eskatu genizkien: zirkulazio arauak errespetatzea, animaliei kalean jaten ez ematea eta haien gorutzak jasotzea, kalean zaborrik ez ustea eta zakarrontzi ezberdinen sailkapena errespetatzea eta tamaina handiko hondakinak kalean botata ez ustea. "Zaindu Agoitz, zure etxea da" leloarekin esku-orriak eta afixak argitaratu eta banatu ziren eta auzolan bat burutu zen.



- Espaloi askotan beheramendu-lanak egin ziren, gurgildun aulkiak eta haurren aulkixoak erabiltzen dituzten pertsonen eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko.
- Bizikletentzako aparkalekuak ezarri ziren eskolan, Kultur Etxean eta Kanpondoan.
- Herri osoan zehar zakarrontzi pila bat gehiago jarri ziren.
- Nafarroa Beherako plazan babes-hesi bat jarri zen, eta aurrerago eserleku berriak jarriko dira.
- Zahar Etxearen ondoan, Domingo Elizondo kalean behera dagoen espaloia berritu zen. Zaharren egoitzaren atarian argi-puntu bat jarri zen; eta ondoko eremua aparkaleku gisa moldatu da.
- Lorategietako ureztapen sistemetan euri detektagailuak jarri ziren, horrela, euria dagoenean ez dira piztuko.

### ZIRKULAZIOA:

Berriki, Agoizko trafikoa arautzeko lehenengo udal-ordenantza onartu da, orain arte, udalak ez baitzuen horrelakorik. Ordenantza horren bidez, Udalak paperan izkiriatura utzi du urteetan herrian mantendu izan den zirkulazioaren antolakuntza. Hurrengo hila-beteen garatuz joango da.

Abiadura moteltzeko guardia etzanak ipini dira eskola publikoaren eta Kanpondoaren inguruan, Barraute kondearen kalean, La Cruz eta San Migel auzoan; horietaz gain, Untzea bidean zeudenak berritu dira.

- Traktoreari edo ibilgailuari akoplatzen ahal zaion sasi-garbitzeko makina bat erosi zen, denbora eta erosotasuna irabazteko.
- Barajitoan babes-hesi bat ipini zen uhateetaraino doan aldapan, inor ibaira erori ez dadin.
- Udalak ibilgailu berria du zerbitzu anitzetako lanak egiteko.

Kaleetako izendegian aldaketak egin dira eta orain arte izenik gabek ziren hainbat toki izendatu dira: Iturzarrea parkea, Zabalea bidea, Memoriaren parkea eta Itoitz plaza.



Pasabideak prestatu ditugu oinezkoentzat eta haurren aulkixoak eta gurgildun aulkiak erabili behar dituztenentzat, espaloirik ez zegoen lekuetan mugariak jarri: Kultur Etxearen eta Toki-Ederren artean, eskolako kiroldegiko atzealdean ere bai, Kanpondoraino arazorik gabe iritsi ahal izateko; eta piboteak jarri dira, hainbat zona babesteko asmoz. Larrainetako auzo berrian, Irigai Auzoan, Kultur Etxearen parean, esaterako.

### BESTELAKO HOBETZE LANAK:

- Alde zaharreko plakak berritu ditugu, eta, orain, artisau-lanaren tankera daukate eta erdigune historikoan egokiago ikusten dira.
- Herriko urbanizazioak seinaleztatu ditugu.

### DÍAZ ETXEA:

Etxeko jabetza eskuratzeko afera motel doa, eta lortzeko denbora igaro beharko da. Aldamioak partzelaren barneko aldera mugitu dira, Trinkete kale aldera zazpi urte jarrita eta kalea moztzen egon ondoren. 2017ean Udalak orubearen %50a erosi zion bi jabeetako bati, udalarekin zuen zorra kitatzearen truke.

Eraikinaren gainerako %50aren jabeari dagokionez, auzitan gaude gaur egun, aldamioak mugitzeak ekarri zituen kostuak bere gain har ditzan. Aurrerantzean, pausuak eman eta jabetza osoa udalarena izango ahal da!

## GIZARTE AUZI ETA BORROKEKIKO BABESA

### TORTURA:

Udalak "Objektu Galduek" dokumentala egiteko dirulaguntza eman zuen. Mikel Zabalzaren kasuaren inguruko dokumentala da, eta gertaeretatik 30. urteurrenean egin dute.

Carmen Alba Madrilgo Gobernu zentralaren ordezkariak udala derrigortu nahi zuen Mikel Zabalzak jasandako torturen salaketa egiteko margotu zen mural bat kentzera, eta ETako kide izatea leporatzera ere heldu zen. Udalak jakinarazpenari helegitea jarri, eta marrazkia ezabatzeari uko egin zion. Herriko mobilizazioei esker, murala Merkatuaren plazan jarraitzea lortu da.



### MEMORIA HISTORIKOA:

Udalak fusilatuen omenezko monolitoa dagoen parkeari izena eman zion 2017.eko irailean: Memoriaren parkea sortu genuen.

Guda zibileko garaietan eta frankismoaren diktaduran fusilatu eta errepresaliatuko Agoizko bizilagunei omenaldia egiten jarraitu dugu urtero, irailaren 21aren inguruan. Bereziki hunkigarria izan zen 2016.eko ekitaldia, altxamenduaren 80.en urteurrena betetzen zenean; orduan emakumezkoek bizitakoari erreparatu genion eta, gainera, El Drogas musikariaren parte-hartzea izan genuen.

Guda zibilean eta frankismo garaian errepresioa jasan zuten emakumezkoen omenaldia egiteko laguntza bat eman dugu Sar-tagudako Memoriaren parkean eskultura bat jartzeko, eta Eloko



Teileriako Ahaztuak elkarteari babesa eman diogu teileriaren inguruetan memoriaren parke bat atontzearen aldeko borrokan (han, Agoizko hamabi pertsona fusilatuen gorpuak topatu ziren).

Franco ez da jadanik Agoizko seme kutuna. Udal honetako 1936.

urtetik gerozko Udal akta guztiak begiratu dira frankismoarekin zer ikusia izan duen pertsonarik Agoizko seme kuttunaren ohorerik ez izateko edo bestelako omenaldirik ez egiteko.

### ITOITZ:

Gertatutako guztia memorian jasotzea eta uren azpian gelditutako herriei omenaldia egitea izan zen Udalaren beste zerreginetako bat. Kanpondoan Itoitz plaza inauguratu genuen, eta, horri esker, orain horren aldeko aldarriak leku bat du gure bailaren.

### TOKIKO MAPA-PIRINIOTAKO ESKUALDEAREN ERREFORMA:

Tokiko Maparen Lege erreformari buruzko eztabaida mahai gainean dago, Nafarroako toki entitateak berregituratzeko. Agoizko eta inguruko herriak ados gaude: Nafarroan, Aurre Pirinioa eskualde berezitu bat da. Hori aitortzeak, izaera indartuko digu eta arazoaren aurrean, konponbideak elkarrekin aurkitzeko aukera emango digu.

### ELKARTASUNA:

Munduko beste bazterretan bizi diren pertsonen ere elkartasuna ematen saiatu gara. Talibes haur senegaldarregana hurbildu gara Jerejef elkartearen eskutik, eta haien errealitate gogorra ezagutu dugu. Saharako herritarren demari laguntza eta babesa ematen diegu, hala nola Udalarengana jotzen duten aldarrika-penei ere.

Udalbiltzarekin hitzarmena sinatu dugu, programa ezberdinetan elkarlana burutzeko.

Katalunian 2017.eko urriaren 1ean gauzatu zen galdeketa legitimoa babesten dugu.

## BERDINTASUNA



### AGOITZEK EZ DITU ERASO SEXISTARIK ONARTZEN:

Mezua garbia eta irmoa da, eta legealdi osoan presente izan dugu.

Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxari atxiki ginen. Horrela, gure herrian, erailketa matxista bat gertatzen denean Udalaren aurrean elkarretaratzera deia egiten da; eta, beste kasu guztietan, elkartasuna adierazten dugu sare sozialen bitartez.

Eraso sexista baten aurrean nola erantzun jakiteko protokolo bat burutu da. Saltokietan eta ostalaritza zerbitzuetan zabaldu zen. Zoritxarrez, 2018.eko jaietan protokoloa martxan jarri behar izan genuen eta herritarren erantzuna eredu-garria izan zen.



Jaien aurretik lanketa berezia egiten da. Alde batetik, Nafarroako Gobernuak sustatutako "Eta jaietan, zer?" kanpaina instituzionalarekin bat egin genuen, eta, bestaldetik, kanpaina propioak bultzatu ditugu. Herriko gizarte, kultura, eta kirolaren inguruko kolektiboek bi bideo sortu zituzten 2105.ean eta 2016.ean, eta sare sozialetan arrakasta itzela lortu zen. Gainera, herriko ostalaritzako langileei formazioa eskaini zaie.

"Agoitz Mugitu-Mueve Aoiz" ekimena 2018.ean abiatu zen, eta dozenaka bizilagunen parte hartzearekin flashmob bat egin genuen, jarduera-programari amaiera emateko; Agoizko bizilagunek, flashmob-eko koreografia ikasi ahal izateko, youtuben bideo



bat zintzilikatu zen eta hainbat entsegu egin ziren.

Ikasleekin eta nerabeekin lanketa bat burutu da espreski, ekimen eta programa ezberdinen bidez. "No solo duelen los golpes" antzezlan eskola orduetan ikusi zuten; ipuin laburren lehiaketan, genero berdintasuna idazgai gisa ezarri da; eta Metachodemacho kanpainari babesa eman diogu.

### MARTXOAREN 8A:

Egun garrantzitsu horren bueltan, 2016an giza-mosaiko bat antolatu genuen eta hurrengo urteetan, ekimen hori, errepikatu da.

Greba feminista antolatu zen 2018an eta Udalak bat egin zuen aldarrikapenarekin, goizeko geldiunean udal bulegoak itxi ziren eta bizilagun guztiei parte hartzera dei egin zitzaizkien.

### AZAROAREN 25A:


Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean, Udalak bat egin du urtero Nafarroako Udalerrien Federazioak, Nafarroako Emakumearen Institutuak eta Udal teknikari emakumezkoek egiten duten adierazpenarekin. Autodefentsa feministarako tailerrak burutu dira eta urtero, Nafarroa Behereko plazan ekitaldia egiten da, erailketa matxisten urteko kasuen datu altuak begi bistan jartzeko eta horien salaketa egiteko.

## GIZARTE GAIAK

### GIZARTETXEA:

Legealdiko egitasmo garrantzitsuenetako bat izan da. Lehenbiziko, Nafarroako Gobernuak Agoizko herriari Bidezainen eraikin zaharra ematea lortu genuen, gizarte ekimenetarako eremua bilakatzeko konpromisoa behin hitzarturik. Ondoren, eraikinaren konponketak egiteko diru-laguntzak eskuratu genituen (72.000 euro); bigarren solairua herriko gizarte ekintzetarako erakundeentzako eta kolektiboentzako erabilgarri izatea erabaki genuen, beraien jarduerak aurrera eramanez ahal izateko eta lehenengo solairua, erretira-

letako Departamenduak eta Nasuvinsak elkarren artean gauzatzen duten ekimenarekin. Horri esker, Agoizko herritarrek alokatzeko etxebizitzak izatekotan, eta etxeen egoera aldatu nahi izanez gero, abantailen eta sustapen-neurrien onuradunak izango dira; era berean, bizi baldintza zailetan dauden pertsonen etxebizitza bat alokatu ahal izateko erraztasunak izango dituzte. Herritar guztiengatik hitzaldi bat antolatu zen, Etxebizitzaren Alokairu Poltsaren programa zehatz-mehats azaltzeko eta, gainera, informazioa etxetik banatu zen.



tuentzako ludotekaren egoitza bihurtu dugu. Sendia ordu batzuetan zaintzapean utzi behar duten familiarentzako erabilgarri dago, bestelako lanak edo zereginak burutu behar dituzten bitartean.

### ERREFUXIATUEKIKO ELKARTASUNA:

Europar Batasunak errefuxiatuen aferarekiko krisi garaian mantentzen duen kudeaketari salaketa egiteko, 2016an, Udalak udal-letxe bakoitiko Europako bandera kendu zuen denboraldi batez.

Gerora, ekintzetan zentratu ginen. Gure herrian Nasuvinsako jabetzaren lau etxebizitza prestatu ziren errefuxiatuak jasotzeko. Gurutze Gorriak gidatutako prozesu baten bidez, Agoizteraino iristen diren pertsona errefuxiatuak hiru fasetako programa batean hartzen dira, horrela, gizarteratzeko laguntza eta aholkularitza ematen zaie. Boluntario talde bat sortu zen hizkuntza ikasketak emateko eta herriko eguneroko jardueretan eta egoeretan ongi moldatzen erakusteko (erosketak egin, aisialdi giroan ibili, osasun-etxera bertaratzeko...). Udalak Gurutze Gorriaren esku toki bat utzi du, harrera programaren koordinazioa gauzatu ahal izateko, eta Aurelio León eraikineko gela bat ere, pertsona heldu berriak gizarteratze lanetan trebatzeko eta gaitasunak eskuratzeko. Esker beroak ematen dizkizuegu proiektu zail honetan parte hartzen duzun pertsona eta kolektibo guztiei, hain beharrezkoak diren lanak egiteagatik!

### ETXEBIZITZEN ALOKAIRU POLTSA:

Udal honek bat egin du Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozia-

### KANPAINAK, HITZALDIK ETA FORMAZIOAK:

Udalak Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearekin elkarlanean gai asko jorratu ditu. Herriko ostalariei formakuntza bat eskaini zien, gazteei alkohola modu arduratsu batean emateari buruzkoa; hazkuntza talde baten eratzea sustatu dugu 0 eta 3 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzat; bebeteka sortzen lagundu dugu, egitasmo horrek bi fase ezagutu ditu, hasierakoa, Kultur Etxean eta bigarrena, Udalaren beheko solairuan; Crhysalis elkar-teak haur transexualei gizarteratzeko laguntza eta babesa eskaintzen die eta guk gure laguntza eman genien; Saray elkar-teak bularretako minbiziaren kontrako borroka egiten du, eta beraien lanari babesa emateko Udalaren eta musika eskolaren aurreko aldeak arrosaz apaindu ziren; Bizitzarako arte terapia tailer bat burutu genuen bularretako minbizi ala bestelako gaixotasunak ezagutu dituzten emakumezkoen zuzenduta; Goizargi elkar-tearekin elkarlanean doluaren inguruko hainbat hitzaldi eman dira...

Lehenbiziko aldiz, gizarte ekimenetarako erakundeek zuzendutako diru-laguntza bat onartu da urteroko jarduerak aurrera eramanez ahal izateko.

Bestalde, Udalak instituzioei eta kolektiboek Aurelio León Formazio Aretoa eskuragarri jarri die, eskatu izan diren hitzaldi eta formazio guztiak burutu ahal izateko, izan jarduerak edo formazio-saioak, lan-arlokoak, inguruneari buruzkoak nahiz soziokulturalak.



## JUBILATUEN ELKARTEA

Urtero 4.500 euroko emakida ematen jarraitu dugu, elkar-tearen jarduerak aurrera egiteko. Udal honen eskakizunari erantzunez, Nafarroako Gobernuak egun erabiltzen den egoitza uztea lortu zuen 2016.ean, egoitza berria jubilatuen kluba izaten jarraituko

zenaren konpromisoa harturik. Horri esker, Agoizko Udalak hila-beteko alokairua aurreztu ahal izan du, aurretik Itoitz-Nafarroako Kanala Fundazioarekin alokairu kontratua sinatua baitzuen (12.000 euro urtea gutxi gorabehera).

## IZAGA GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEA

### LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK:

Legealdi honetan, Mankomunitateak larrialdiarako laguntza propio bat eman du, Nafarroako Gobernuaren apustuari esker, urtero horrelako zereginetarako 13.000 euroko emakida baitu. Nafarroako erakundeak emandako diru zenbatekoaz gainera, Udalak ere beste ekarpen bat onetsia du.

Mankomunitateko lantaldea indartu da. Gizarte langilearen lantaldea jardunaldi erdikoa zen eta orain jardunaldi osokoa da, eta familia arreta ematen duten bost langileen jardunaldia %50etik %56,8ra handitu da.

## UDAL KUDEAKETA

### HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA:

Datu Pertsonalak Babesteko Legean ezarritakoari gure jarduerak egokitu dugu, horri jarraiki datu pertsonalen babeserako fitxeroak sortu ditugu, eta, gainera, administrazio elektronikoa martxan jarri dugu, herritarrek Udalarekin tramiteak on line egin ahal izateko.

### BALORAZIO TXOSTENA:

Udalen derrigorrezko lan bat da Balorazio Txostena bost urtean behin berritzea. Agoitzen egindako azkenekoa 2004.ekoa zen,

Mankomunitatearen egoitzako kanpoaldea eta barnealdea berri-tu izana lan garrantzitsuak izan dira. Logotipo berria estreinatu zuen 2016an eta aurten, eraikinaren eremu ezberdinak margotu eta apaindu ziren.

Jarduera anitz sustatu dira: 60 urtetik gorakoentzako hitzaldi bat; herriko adineko pertsonen zuzendutako hitzaldi bat Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutu ditzaten...

emailea lurzorua, zorupearen, bide publikoaren, komunalaren lur-eremuak...ustiapen bereziagatik.

### EDATEKO UR ARAZTEGIA:

Edateko ur araztegiaren kudeaketa aldatu da; orain, enpresa bat kontratatu da, Longida, Urraulbeiti eta Irunberriko Udalekin batera. Araztegi lanak espezializazio maila handia eskatzen du, eta lan karga handia da. Arrazoi horiek medio, une horretara arteko (2016-



hau da, 2009.ean ez zen egin. Txostenaren berritze lanak 2017.ean egin genituen, eta 2018.ean indarrean sartu zen. Tasak ere eguneratu ziren eta orain, %0,22an dago. Gobernuak Udalak derrigorrezko dituen %0,25ko tasa ezartzera, beraz, gutxika-gutxika tasa igo beharko dugu, ezarritako gutxienezkoa ezarri arte.

### UDAL-ORDENANTZAK:

Hainbat ordenantza berri dira eta beste zenbait berri egin dira. Txakurtegien udal kudeaketari buruzko ordenantza (orain arte, udalak ez zuen zerbitzua kudeatzen); saltzaile ibiltarien jarduerak herrian arautzeko ordenantza; hirigintzari lotutako dokumentuen tramitazioa arautzen duen ordenantza; uraren tasen inguruko ordenantza; erabilera anitzetako gelaren eta Aurelio León aretoaren erabilera buruzko ordenantza; komunalen ustiapenari buruzko ordenantza; herritarren kultura eta kirola jarduerak eta euskarearen alorreko jarduerak laguntzeko ordenantza; ordenantza arau-

urtea) kudeaketa ereduak aldatu genuen. Lehenago, Agoizko udal langileek zeregina burutzen zuten, eta orain, ordea, Uraren goi-hornidurarako Udalen borondatezko elkar-teko lau herriek kontratatutako langileek egiten dituzte.

### ZUNTZ OPTIKOA:

Zuntz optikoa 2018.ean iritsi zen gure herrira, eta Nafarroako Gobernuaren egoitza guztietara lotu zen (osasun-etxea, eskola, epaitegia, NEZ...). Bi konpainia pribatu horniketara lanak egiten ari dira, 2019.eko lehen hilabeteetan zuntza Agoizko herritar guztiengana eramateko. Zalantzarik gabe, aurrerapauso handia da.

Ehiza-barruti publikoaren eta larre komunalen kudeaketa ereduak berri dira. Agoitz-Longidako mugak berritzeko batzordea lanean hasi da Nafarroako Gobernuaren Toki-Administrazioen departamenduetarekin batera.

## OSASUNA

### OSASUN-ETXEA:

Egindako lanei esker, legealdi honen amaieran, Nafarroako Gobernua osasun-etxea handitzeko lanei buruzko konpromisoa hartu du. Herriko osasun-etxea gainezka dago, biztanle kopurua handitu. Udalak osasun-etxearen atzeko Udal lur-eremuak eman ditu beharra konpontzeko, eta dena aurreikusit bezala gertatzen baldin bada, Nafarroako Gobernua osasun-etxearen handitze lanei hasiera emango die 2019.ean.



Legealdi honetan, osasun-etxearen zerbitzuak hobetzen saiatu gara, eta egindako aldaketen artean Etxeko Ospitalizazio Zerbitzua gurera ekartzea lortu dugu.

Udala, Izaga Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea eta osasun-etxearen arteko osasun gaien lan-ekintzak koordinatzeko taldea eratu dugu legealdiaren azken garai honetan.

### OINARRIZKO BIZI-EUSKARRIAK ETA DESFIBRILATZAILEAK:

Gure lehenetsunetako bat izan da udal langileek eta herritarrek lehen sorospenak, Oinarrizko Bizi-euskarriak eta desfibrilatzaileen gaineko oinarrizko ezagutzak eskuratzea. Herrian 6 formazio ikas-

taro burutu dira eta bertan 40 pertsonen parte hartu dute guztira.

Gaur egun, Agoitzen lau desfibrilatzaile daude: Kanpondoan, San Migel Zelai Berrian, osasun-etxean eta DYArengo egoitzan.

Udalak Diario de Navarra egunkariari antolatutako erronka osasuntsuan parte hartu zuen 2018.ean. Gure helburua herrirako desfibri-

latzaile gehiago lortzea zen eta horretan "Agoitz bihotz osasuntsua" leloa bultzatu genuen. Gure herriko bizilagunek bizikletan egindako paseo eta ibilbideei esker (50.000 km. ibili zituzten osotara), desfibrilatzaile berri gehiago eskuratzea errazagoa izan zen.

### PARKE BIO-OSASUNGARRIA:

Zabalea paseoa inauguratu zen 2017.ean, kalean gimnasia egiteko eta sasoiari mantentzeko aparatuen funtzionamendu ezberdinak azaltzeko, eta, gainera, doako klaseak eman ziren maneiatzen ikasteko. Parkearen inguruak hornitu ziren iturri bat, zakarrontziak eta merendero-mahaiak ipinita.

## HEZKUNTZA

### ESKOLA PUBLIKOA:

Eskolaren kanpoaldea antolatzeke eta bere irudia hobetzeko ahalginetan lan txikiak, baina interesgarriak, burutu dira. Arkupeak apaintzeko grafiti tailer bat egin da, kanpoaldeko lorategiak landu dira eta ureztapen-sistema ipini da, patioan iturria jarri da, arkupeen ondoan ormigoia jarri da horniketa hobetzeko, eskolako sarrera egokitu da mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat; eskolara iritsi aurreko biribilgunean hesiak ipini dira hobe mugitzeko, barrakoietan oholta jarri da, konpostaje komunitarioa egiteko gunea jarri da, bizikletentzako aparkalekuak jarri dira...

Eskolan beste hobekuntza lana batzuk egiteko diru inbertsio txikiak egin dira: Eraikinaren bigarren solairuko komunak 2015ean berritu ziren (40.479,20 euro + BEZ).

Legealdiaren azken garai honetan, eskola handitzeko eskaeran tematu gara eta dema horretan, saiakerak biderkatu ditugu. Ikasle kopurua etengabe handitzen ari da, eta ondorioz, eskolan eremu falta dago.



### 0-3 URTEKO IKASLEENTZAKO ESKOLA:

Eskolako kudeaketa lan-taldea sei urterako berritu zen 2017-2018 ikasturtean. Kudeaketaren arduradunek hobekuntza lan handiak egin dituzte jantokian eta erdiko patioan. Gainera, eraikinaren kristalak aldatu ziren arautegian ezarritakoa betetzeko eta eskolako sarbidea arautu zen, orain, norabide bakarrekoa da eta abiadura moteltzeko sistemak ipini ziren.

Taupadak herriko haur eskolako enpresa kudeatzailea da eta azpimarratu nahi dugu Nafarroako Gobernua Kiriolaren eta Gazte-riaren Institutuko Hasi Gazte ekonomia sariaren irabazlea izan zela.

### ESKOLA JANTOKIAREN BATERATZEA:

Eskolan eta haur eskoan ematen den janari guztia 2018. urtetik geroztik eskolan bertan prestatzen da. Horrela, eskoletako haurren bazkarian kalitate handiagoa ematen dela ziurtatzen da.

## UDAL MUSIKA ESKOLA

Legealdi honetako berrikuntzen artean ikasgai berriak ditugu: etxeko txikiarentzako "Musika eta mugimendua" ikasgai berria dago eta "Musikal egiten al dugu" ikastaroa ere, ikasturte amaieran oholta gainean erakusten dute urte osoan egindako lana. Fanfare txikia estreinatu da, eta hori etorkizunean herriko musika bandarentzako musikari berrien iturri izatea espero dugu.

### H-ARITU:

H-aritu taldea jaio zen. Hezkuntza eragileek beraien indarrak batu zituzten eta sare bat sortu zuten haurrekiko eta nerabeekiko tratua onartzeko. Jarduera formazio-programen bidez gauzatzen dute. H-aritu ekimeneko partaideak dira Udala, eskola, 0-3 urteko haurrentzako eskola, Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea eta euskara zerbitzua. Dagoeneko hainbat ikastaro, formazio eta hitzaldi antolatu dituzte.

### IGEEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK:

Udal honek lehenengo aldiz, eskolako eta 0-3 urteko haurren eskolako guraso elkarteek burututako jarduerari zuzendutako diru-laguntzen deialdi bat ireki du.

ditu musika eskolan ikasteko eta hilabetean behin laguntza bat jasotzeko (ordenantza baten bidez zehaztuta), herrian erroldaturik dauden ikasleek ikasgai bakoitzeko hamar euro arteko diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute gure herriko eskolan musika hezkuntza indartzeko.

Azkenik, Udal Musika Eskolak logotipo eta iruditegi berria estreinatu duela nabarmendu beharra dugu.



## INGURUMENA

### TOKIKO AGENDA 21:

Legislaturaren hasieran, behin betiko Agenda onartu zen eta Agoizko Udalak Nels Sarearekin bat egin zuen. Nels Sareak Agenda 21 egin duten Nafarroako entitate guztiak barne biltzen ditu eta guk zuzendaritza batzordean parte hartu dugu.

### SOLANOKO NABE ZAHARRAK:

Herriko sarreran eremu zaharkitu eta hondatu bat genuen eta erortzeko zorian zegoen, hori berritzea eta itxura on bat ematea udalbatza honen lehentasuna izan da legealdi honetan. Erabaki horren ondorioz lan zehatzak egin ahal izan dira, hondakinak kendu eta antolatzeko lanak gehienak. Irati Hondakin Solidoen Mankomunitateak eta Landa Garapenerako eta Ingurugiro Departamenduak dituzten bulegoen leku aldaketa gauzatzen ari da, eta Biomasa Eremu Logistiko bat egiteko Nasuvinsarekin elkarlanean gaude anbiziozko egitasmo batean.

### INGURUMEN HEZKUNTZA:

Lehenbiziko aldiz udalaren aurrekontuetan ingurumen hezkuntzari buruzko jarduerak gauzatzeko diru-sail txiki bat onartu da; tokiko saguzarrak aztertu dira, gure herrian fosilak bilatzeko



## IRATI MANKOMUNITATEA HSM

### PROIEKTU GARRANTZITSUAK:

Legislaturaren azken garaian bi proiektu garrantzitsu abiatu dira. Lehenengo proiektu nagusia Ugardako zabortegiaren behin betiko zigilatzea da. Zabortegi hori, Urrotzeko udalerrian dago. Egitasmoak hiru milioi eurotako aurrekontua du eta Nafarroako Gobernuak %90a finantziazten du. Bigarren proiektu garrantzitsua Mankomunitatearen egoitza lekuz aldatzea da, Solanorena izandako nabe zaharren tokian egokitzeko. Egitasmoa gauzatzeko lokalen jabegoarekin, Nasuvinsarekin, hitzarmen bat sinatu zen.

### KONPOSTATZEA:

Mankomunitatearen apustu indartsuenetako bat konpost-egitea da eta azken lau urteetan proiektua hedatzen jarraitu du. Indibidualki egin daitekeen konpostajeaz gain, konpostaje kolektiboa sustatu da eta Agoitzen hiru toki berri prestatu dituzte horretarako:



jarduerak egin dira, gure inguruetako anfibioak eta narrastiak eza-gutzera eman dira, hegaztiei buruzko jardunaldi bat gozatu genuen...

### ZUHAITZAREN EGUNA:

Urtero zuhaitzak landatzeko jarduerak sustatzen ditugu toki berdeak zaintzeko eta inguru atseginak indartzeko (Baraxittoa parkea, Zabalea bidea...).

### ZARIKIETAKO MENDIAKA:

Nafarroako Gobernuak Batasunezko garrantzizko lekua (BGL) izendatu zuen, horren ondorioz, lekua zaintzeko babes neurriak ugaritu dira eta ingurua hobetzeko ekintza-plan bat osatu da.

### KLIMA ALDAKETARI BURUZKO JARDUNALDIAK:

Nafarroako Gobernuak KLINA izenburua zuten hainbat jardunaldi antolatu zituen zenbait herrietan klima aldaketa aztertzeko; Agoitzek ere parte hartu du. Gure herriko ordezkariak klima aldaketak Pirinioetan izango dituen ondorioez jardun ziren goizeko atalean. Aditu bikainek parte hartu zuten.



Tamaina handiko hondakin bilketa egiteko, Emausko Trapuketariak hilabetean hirutan etortzen dira herrira, beraz, zerbitzuaren maiztasuna handitu egin da.

Garbigunea ere martxan jarri da, zerbitzua astean behin ematen da, kaleko merkaturako dagoen egun berean.

### TOKIKO AGENDA 21:

Mankomunitatea bere Tokiko Agenda 21 propioa osatzeko azken lanetan dago eta lanaren emaitzak Irati Hondakin Solidoen Mankomunitatearen jardura osoan eragina izango du.

### KONTZIENTZIAZIOA:

Kontzientziazioa Mankomunitatearen lan garrantzitsuenen artean dago, nabarmena ez baldin bada. Lurraren Eguna ospatzen hasi ginen 2016ko ekainean, jardura bereziak egin ziren eta konpostaje komunitarioaren bidez lortutako ongarria banatu zen.

## ONDAREA

### IRATIRE BIDE BERDEA:

Asko aurreratu da Iratiko antzinako trenbidea ibilbide bihurtzeko eta Arga Ibaiaren bidearekin, Plazaolako Bidearekin eta EuroVeloarekin lotzeko egitasmoan.



Bidea bederatzi udalerriz zeharkatzen ditu, proiektuan parte hartzen dugun udala guztiok hasierako lan eta aurreko tramite guztiak amaitu ditugu dagoeneko; beraz, proiektua hasteko puntuan dagoela esan dezakegu, Madrilgo Gobernuak gauzatzeko data ematearen faltan gaude.

Legealdi honetan, udalerriaz gaindikoa intzidentziazko proiektu sektoriala (PRIS) onartu da, desjabetze prozesua burutu da eta behin betiko proiektua osatu da (hiru milioiko kostua du eta hiru fasetan banatuta dago), Madrilgo Gobernuaren Bide Berdeen Plan Zuzendariak bere baitan jaso du (horrek, betetzeko bermeak

Birziklapenaren Astea martxan jarri da eta jarduerak egin ziren, gazteentzat bereziki zuzenduak. Argazki Lehiaketa bat antolatu da eta gero, egindako argazkiekin egutegi bat argitaratzen da, hori etxeko etxe banatzen da eta kontzientziazioaren helburua du. Planetaren Garbiketaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez, Iratiren ibaiertzak garbitu ziren auzolanean.

Mankomunitatea Toki-entitate gisa Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioara batu zen 2016.ean.

### GIZARTE-TXANPONA:

Mankomunitateak proiektu berri batean lanean ari da. Ontziak ez diren plastikoa sailkatu eta Garbigunera eramateagatik sariak emango dira. Gizarte-txanponak bildutako plastikoen truke emango dira. Txanponak eskualdeko herrietan erabili ahal izango dira eta horrela, komertzioa dinamikoagoa bihurtuko da.

ematen ditu). Bideak zeharkatzen dituen bederatzi herrietako udalek bidea gure herrietatik igarotzen den tartek ongi mantentzeko konpromisoa sinatu dugu eta Udalbatzan onartu zen.

### PIRINIOETAKO GALTZADA ERROMATARRA:

Anbizio handiko proiektu interesgarria da. Longidatik Artzibarerraino eta ondoren Luzaidetik mugaz haraindik zihon galtzada erromatarra berreskuratu nahi dugu. Agoizko Udala proiektuaren sustatzailea da, beste Udal askorekin batera. Horrela, galtzada erromatarra Iratiren Bide Berdearekin eta Iparraldearekin lotzea lortuko dugu. Artzibarreko tartearen lanak amaiturik daude.

### BIDEAK ETA IBILBIDEAK:

Irati ibaiaren ibilbidea: Irati ibaiaren inguruan eta naturan zehar zabaltzen den ibilbidea atontzeko lanak hasi dira. Ibilbideak gure



hiribilduaren interes gune garrantzitsuenak bisitatzen ditu, turismoarentzako erakargarriak direnak: uhateak, Zerrategiaren auzoa, Iratiko trenbidea, San Romango ermita, Elur-zuloa, Gendulaingo bidea eta zubia.

**HERRIAN BARNAKO IBILBIDEA:**

Agoizko herrigunea zeharkatzen duen ibilbide bat da eta bidean Agoizko leku paregabeak ezagutu ahal dira: zubia, eliza, Argamasillako jauregia, Diaz etxea, alde zaharra...Eliza ondoko aparkalekuan informazio-panel bat ipini zen ibilbideari buruzko informazio guztiarekin.

Zuhaitz paregabeak: Ekimen honen bidez hamar zuhaitz paregabe seinalezatu ditugu, izan beraien istorioagatik, garaieragatik edota kokalekuagatik. Berauei buruzko informazio zehatza es-

kuratzeko eta bisitan hurbildu ahal izateko esku-orriak egin dira. Udalak zuhaitz nabarmen horiek babestu ditu beraien iraunkortasuna ziurtatzeko.

**ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK:**

Udalak Nafarroako Gobernuaren ekimenarekin bat egin du urtero 2016an hasi zenez geroztik eta lan honetan Induriagako aztarna megalitikoak, Iratiko bidea, Ekaiko Zerrategi auzoa, Irati SAr buruzko erakusketak eta Agoizko Historiaren ezagutza sustatu dugu.

**ONDASUN KOMUNAK BABESTEKO ETA BERRESKURATZEKO IKERKETA ETA PROIEKTUA:**

Landa-lurzoruaren katastroan azterketa zorrotza egin genuen eta lur komunalaren sei hektarea gaizki okupaturik zeudela konturatu ginen. Herriko lurra berreskuratzeko prozesua burutu dugu.



**TURISMOA**

**XINPLEA DA, AGOITZ:**

Gure herriaren promozioa zaindu dugu gure mugetatik haratago ere bai. Conocer Navarra eta Concejo aldizkariak gure herriari eskaini zioten beraien argitalpen bateko atal garrantzitsuenak. Navarra Televisión telebista katearen Tiramillas programa eta Xaloea Teletistaren Herriz Herri programa ere saio bana eskaini zioten gure bizitokiari. Nafarroako Parlamentuaren mahaiak eta bozeramaileen batzordeak gure Udaletxeko udalbatza-aretoan lan-saio bat egin zuen eta erkidegoko talde parlamentario guztietako bozeramaileak bertaratu ziren. Nafarroako Gobernuak Irati ibaiari buruzko dokumentala bat osatu du eta gure Udalak parte hartu dugu.

Informazio-panelak jarri ditugu herriko sarreran (osasun-etxearen inguruan), elizaldeko aparkalekuan eta udaletxeko plazan. Gainera, San Migel errotonda aldeko herriko sarrerako informazio-panela berri dugu.

Agoizko kale-izendegia eta zerbitzuen mapa argitaratu da eta herriko denda, saltoki eta zerbitzuetan banatu da. Esku-orri turistiko berriua eta landuago bat argitaratu da.



**AUTOKARABANENTZAKO EREMUA:**

Uhateen inguruetan dago, bederatzi ibilgailuentzako lekua du eta urak garbitzeko puntu bat dago. Baraxitoaren atzeko parkean dago, bertan picnic-gunea dago eta turistek zuzendutako informazio panel bat, gure herriko interes-guneak ezagutzera emateko.

**ELIZAKO BISITA GIDATUAK:**

Agoizko Udalak San Migel eliza ezagutzeko bisita gidatuen programa mantentzen du, gure herrira datorren turismoarentzako interes gehien pizten duen jardueretako bat da hori.



**ITOIZKO URTEGIA:**

Udal kudeaketaren arduradunak garenok ez dugu bat egiten ez azpiegitura, ez eta proiektuarekin, baina turismoarentzako interes gune bilakatu da zalantzarik gabe. Horregatik, Udal honek Ebroko Ur Konfederazioarekin hitzarmena sinatu zuen eta bertan jasotzen da urtegiaren irekiera partziala, aparkalekuen horniketa-lanak egitea eta Agoitzi buruzko panel bat ipintzea informazioa eta eskaintza turistikoa azaltzen duena. Azpiegitura honetan ere bisita gidatuak eskaintzen dira.

**JUAN ANTXIETA:**

Artista horrek landu zituen erretaulak ezagutzera emateko, Tafalla, Añorbe, Kaseda eta Agoizko Udalak batu genituen. Kultur hedapena egiteko esku-orri bat argitaratu genuen eta lau erretabloetatik bisita atsegina eta dibertigarri bat prestatu zen. Karekin Kultura eragileak proiektua dinamizatu zuen eta Vianako Printzea Erakundearekin elkarlanean lau herrietako haurrei zuzendutako gida didaktiko bat prestatu zuten.



**IRATI S.A.:**

El Irati S.A-ren historia ezagutzeko funtsezkoa da eta udalak zeregin horretarako erakusketak handi bat eratu zuen, panelekin, argazki zaharrek, Zerrategiko auzoaren eskala-maketa batekin eta lekuan bertan topatutako gaiekin. Erakusketara 2.000 pertsona inguru etorri ziren eta gerora, Nafarroako Artxibategian ere erakusgai jarri zen. Orain, udalak egitasmo berri bat du, erakusketak udal areto batean etengabe erakusgai egoteko lanetan gaude.

Longidako udalerriarekin batera, Ekaiko Zerrategi auzoa eta ingurua Balioan jartzeko Plana osatzeko lehenengo pausua eman dira eta Plan Zuzendari bat osatu da, auzogunearen balio guztia erakusgai jartzeko eta Nafarroako industria ondarearen altxor handienetako bat desagertzen ez usteko. Plan Zuzendari horren bitartez, aurrerago tamainako esku-hartze bat egiteko hastapena emango dela espero dugu.

**AGOIZKO ISTORIOAK:**

Erakusketak burutzeko Udal Artxibategian eta Nafarroako Artxibategi Orokorrean aurkitutako testuekin osatutako panela erabili ziren. Agoizko alde zaharreko maketa berri bate aurkeztu zen baldi berean eta antzetzutako bisita gidatuak egin ziren. Erakusketak Kultur Etxean zegoen erakusgai eta bertan 1.200 pertsona ibili ziren.

## KULTURA ETA OSPAKIZUNAK

### AGOIZKO KOLEKTIBOEN ETA HERRITARREN ALDE GAUDE:

Agoitz, bertako biztanleak eta beraien kolektiboak kulturaren protagonista nabarmenenak dira.

Legealdi honetan erakusketa kolektiboetako protagonistak gure bizilagunak izatea nahi izan dugu. Erakusketa kolektiboak egiten hasi ginen 2016an eta geroztik, 50 margolari, eskultore eta zeramika egile amateur baino gehiagok parte hartu dute. Aurten, 2019. urtea, Agoizko eta Zangozako pintura ikasleak erakusketa-eren protagonistak izan dira.



Udalak herriko kultura taldeak babesteko hitzarmenak sinatzen ditu urtero eta legealdi honetan, eragile hauekin hitzarmenak sinatu dira: dantza taldearekin eta agramontarren eta beaumontarren arteko bake itunaren hitzarmen-sinatzearen inguruko bere antzezlanaren ordezkari bategin; Bilaketa ahots eta musika instrumentalarren taldearekin; eta Irati Antzerki Taldearekin.

Irakurle talde bat osatu da, Socorro Latasa Agoizko idazleak gidatzen du.

Argazkilaritza Lehiaketan Agoizko herritarrei zuzendutako sail berezi bat dago 2016. urtetik geroztik. Irabazlea herritarren bozken bidez erabakitzen da eta sari berezia ematen zaio.

San Romaneko erromeria sustatu da eta ospakizunean hobekuntzak egin dira 2018 urtea geroztik, bertan, agramontarren eta beaumontarren arteko bake ituna sinatu zen 1479. urtean eta gertakariak gogora ekartzeko dantza emanaldiak egiten dira eta garaiari buruzko testuak jendaurrean irakurtzen dira.

Gure herriko bizilagunen partehartzeak herritarren proiektuak garatzea ahalbidetzen du. Emakumeak: sormen-gai, sormen-iturri-Musas Inspiradas y Musas Inspiradoras parte hartze kolektiboaren eredu bat da.

### KALITATEZKO PROGRAMAZIOA:

Programazioaren gainontzeko atal guztietan kalitatezko ikuskizun-aren aldeko apustua egin dugu. Kultur programari itxiera emateko uda guztien amaieran ikuskizun garrantzitsuak antolatzen dira; Sortu berriko Dantza Garaikidearen Jaialdiaren eskutik Agoitzera

heldu dira ikuskizun garrantzitsuen inaugurazioak; Nazioarteko koru-zikloak urtero mundu osoko abesbatzak hurbiltzen dizkigu gurera; "Oholtzara Salto-Salto a Escena" proiektua izan dugu herriko gazteengana antzerki hurbiltzeko. Zerbaitengatik Agoizko oholtza Nafarroako Antzoki Sarearen partaide da.

Gure herriko Kultur Etxera honakoak izan dira: Pepe Viyuela, Xabier Morrás, El Drogas, Iñaki Ardanaz eta Ana del Rey "Una pareja cualquiera" antzezlanarekin, Puro Relajo, Golden Apple Quartet, Iparfolk, Jesús Mari Lazkano, Nafarroako Bertsolarien finalaurrekoa,

Navarrorum erakusketa, Demode Quartet, Mielotxin, Jito Alai ("Cas-tañuelas" pertsonari buruzko ikuskizuna), Daniel Tamayo...

### KULTUR ETXEA:

Hobekuntza-lana hauek burutu dira: eraikinaren erabilerari buruzko udal-ordenantza onartu da, Wi-Fiaren instalazioa egin da, Bilaketarekin hitzarmen bat sinatu da José Hierro aretoa modu konpartituan erabili ahal izateko, liburuen maileguak itzultzeko postontzi bat ipini da liburutegia itxita dagoen ordutegietan erabili ahal izateko, sarrerak on line erosteko sistema prestatu dugu, entzumen-desgaitasuna duten pertsonen kultura emanaldietara arazorik gabe bertaratzeko eta oholtza gainean esaten den guztia gozatu ahal izateko entzumen-aparatuak erosi dira, auditorioko eskaileretako zuloak estali dira istripuak saihesteko, eszenatokira doazen eskaileretan barandailak jarri dira...

Nafarroako Gobernuaren oihanzaingo-zerbitzuetarako Toki Ederren erabiltzen ziren aretoen zesioa eskatu da Kultura eta Ikastaroen Udal-sailaren beharretan erabiltzeko.

### JAIK:

Jaiak herritar guztiengana iristeko pausu gehiago eman dira eta partehartzea handiagoa izan da. Kultur Guneak jardueren balorazioa egiteko eta programazioa osatzeko ardura du.

Legealdi honetan, herritarrek jaietako kartel nagusia beraien bozken bitartez erabakitzeaz gai, txupinazioa zeinek jaurtiko duen ere hautatu dute. Azken jaietan berrikuntza bat egin da zuziria nor jaurtiko duen erabakitzeaz, on line ere bozka eman ahal izan delako; beraz, herritarrek parte hartzeko aukerak zabaldu ditugu.



## EUSKARA



### ARI GARA:

Agoizko Udalak Ari Gara planaren bigarren edizioa egin du euskararen normalizazioaren bidean eta horren baitan, ekimen garrantzitsuak burutu dira. Euskararen ezagutza sustatu da: udaleko langileei euskaraz trebatzeko ikastaroak egiteko aukera eman zaie, euska ikasteko dirulaguntzak eman zaie herriko ikasleei eta D ereduaren aldeko kanpainak egin dira, besteak beste. Erabilera handitzeko, berriz, udalak ludoteka, ludoteka eta aisia aktibitatean antolatzen jarraitu du. San Migel Ikastetxean bertsoari buruzko ikastaroak eman dira eta baita ahozkoasuna lantzeko tailerrak ere. Euskaraz kontsumitzeko gonbitea egin da "Euskarazko Produktuen Katalogoaren" bidez. "Ze Berri?" Aldizkariarekin gure hizkuntzarekiko atxikimendua sustatu da.

Ekimen berri nabarmenenak saltokietan euskararen erabilera errazteko zuzendu dira: "Euskaraz eskatzea xinplea da-Pedir en euskera es simple" kanpaina burutu da eta Agoizko saltokietan ohiko produktuen izenen itzulpenak banatu dira. Bestalde, udalbatzetako aktak euskaraz eskuratu daitezke dagoeneko.

## GAZTERIA

### GAZTEOK MUGIMENDUAN:

Udala, Kanpandoa eta Gazte Asanbladak beraien indarrak bateratu dituzte programa hau martxan jartzeko, horri esker, Agoizko gazteek aisialdirako jarduerak gauzatu dituzte: rafting, eski, surf, mendia...

### UDALBATZA TXIKIA:

Legealdi honetan Udala Txikia berriro sustatu dugu. Herriko jaiegunetan duen paperaz gain (betebehar hori, bere horretan mantentzen da), pentsatu dugu Udalbatza Txikiaren eraketa Udala



### ERA.EUS:

Nafarroako Udaletako 28 euskara zerbitzuak batu ziren eta era.eus plataforma digitala sortu zuten. Plataformaren helburuak dira euskaraz ikasten duten hauren gurasoei laguntza eskaintzea euren seme-alaben hezkuntza prozesuan gertuagotik lagundu ahal izateko. Bertan topatu ditzakegu jolasak, musika, Internetarako aplikazioak, ipuinak, agenda...

### EUSKARALDIA:

Kontseiluak sustatutako ekimenari herriko 212 bizilagunek atxikimendua eman zioten eta ekimenen Ahoz eta Belarriprest gisa parte hartu zuten. Lehenengo konpromisoa hizketaaldi guztiak euskaraz hasia izan zen eta bigarrenek, euskaraz entzuteko prestutasuna hartu zuten, erantzuna euskaraz ala erdaraz eman arren. Esperimendu linguistikoa 11 egunetan garatu zen. Gure herrian hizkuntzaren normalizazioaren aldeko beste urratsa bat gehiago izan zen.

### HITZARMENAK:

Elkarlanerako hitzarmenak sinatu ditugu urtero eragile ezberdinekin: Kontseilua, AEK, Korrika, Irati Irratia, Euskalerrria Irratia...

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei hurbiltzeko baliatu beharra dugula. Urte osoan zeregin ezberdinak dituzte: Olentzerori eta hiru Errege Magoei ongiatorria emateko ardura dute, udalbatza bat burutzen dute eta bertatik proposamenak aurkezten dituzte; al-dakatarako eta hobekuntzarako konpromisoak ere hartzen dituzte, auzolanetan eta kontzientziazio kanpainen parte hartzen dute, adibidez zabor bilketa egokiaren aldeko lanetan edo txakurren gorrotzak jasotzearen beharraz aritzen dira. Agoitzen alde lan egiten dute eta ardurak hartzen dituzte, helduen udalbatza bezalaxe.

## KIROLA

### KANPONDOA:

Kanpondoako langileekin bi hitzarmen kolektibo sinatu dira, horri esker, enpresa publikoaren langileen lan baldintzak nabarmen hobetu dira. Beste kirol instalazio handiago batzuek gure hitzarmenak eredu bezala hartu dituzte bertako hitzarmenak negoziatzeko momentuan.

Bazkideen iritzia beti da garrantzitsua, horregatik, instalazioari buruzko iritzia jasotzeko hainbat galdetegi prozedura zabaldu dira. Kirol ikastaroei eta berrikuntzei buruz informazioa zabaltzeko deialdiak egin dira. Igerileku estaliaren ordutegian aldaketak egin ahal izateko kontsulta bat egin da.



Diru-inbertsio garrantzitsuenen artean eguzki-plakak funtzionatzen jartzeko lanak egon dira. Eguzki-plakak ipini ziren kirol gurearen konponketa-lanak egin zirenean, baina konponketa berri hau egin arte ez dira inoiz martxan jarriak izan. Inbertsioa 25.000 eurokoa izan zen eta lehen unetik beretik instalazioetan energia-aren aurrezpena nabaria izan da.

Gainera, kanpoaldeko igerilekuetan lur-betetze handi bat eta erite lanak egin ziren. Barbakoen ondoan arraska berriak ipini ziren eta horien erabilpena arautu zen erabilera eta gozamenerako ordenantza baten bitartez.

Kanpondoako kuadro elektrikoan berrikuntza-lanak egin dira eta automata bat ipini da.

### KIROL INSTALAZIOAK:

Kirol instalazioak berritu dira ahal izan den neurrian. San Migel Berria futbol zelaian araztaile eta fosa septiko berriak ipini dira.



### AGOIZKO MENDI LASTERKETA:

Kirol zita gazte honen lehenengo edizioa 2016an izan zen. Hiru lasterketa egin dira eta orain, gure helburuak dira Agoitzek mendi lehiaketan egutegian kirol zita garrantzitsu bat edukitzea eta gure ingurunearen eta mendien promozioa. Lasterketa honek ezin izango zuen aurrera egin antolakuntzan eta laguntza ematen ibiltzen diren boluntarioen lanik gabe. Auzolan handi bat da eta eredugarria da! Eskerrik asko zuen denbora eskaintzagatik!

### KOSTRADAREN LASTERKETA:

2017. urteaz geroztik Kanpondoak antolatzen du jai aurreko astean antolatzen den Kostradaren lasterketa.

### DIZIPLINA EZBERDINEN SUSTAPENA:

Legealdi honetan kirolarekiko babesia dibertsifikatzen saiatu gara. Euskal Jai Fundazioarekin hitzarmen bat sinatu da erremontea indartzeko; ondorioz, Agoizko Erremonte eskola sustatu da eta fundazioak antolatzen dituen lehiaketa nagusietako partidak herrian ikusi ahal izan ditugu. ElkarPelota pilotariak trebatzeko zentroak Promesen txapelketako partidak Toki Ederren eskaini ditu bi urteetan; Agoitz KK'n emakumezkoen eskubaloitako talde baten sorrera bultzatu da eta eskubaloitako Nafarroako azpiko kategorietako txapelketetako finalak jokatu dira gure herrian; jaietako pilota txapelketetan pilotari profesionalak izan ditugu gurean eta emakumezkoen esku-pilota partidak ere jokatu ziren; Nafarroako Txirrindularitza Biraren etapa bat Agoitzen hasi zen; euskal selekzioen ofizialtasuna aldarrikatzeko urtero egiten den Mendi Martxa Agoitzen amaitu zen eta parte hartzaile guztiei harrera egin genien...